

Intsinis pinuak atzera egin du: 3.464 hektarea gutxiago urte batean

Azkeneko kanpainan, hiru landaketatik bat, cryptomeria japonica espeziearena izan zen: 449 hektarea. Itsas pinuak eta pagoak ere aurrera egin zuten

Los Aurreko kanpainan Gipuzkoako baso jabe partikularrek 1.372 hektarea birlandatu zituzten gaitzak jotako pinua bota beharrean suertatu ziren lursailetan. Guztira, 3.464 Intsinis pinu hektarea moztu ziren pasa den urtean eta horrek galdera asko eragiten ditu baso jabeen artean. Eta orain zer? Zein da alternatiba? Azalera horren guztiaren %60 zain dago. Zer landatu? Halere, jabe partikularren ahalegina garrantzitsua izan zen. Birlandatu ziren hiru zuhaitzetatik bat cryptomeria japonica izan zen. Hiru arbol berrietatik bat espezie honetako izan zen. Beste guztiak baino gehiago.

2018-2019ko datuek argi diote: cryptomeria japonica espeziea nagusi izan zen birlandaketetan. 449 hektara landatu zituzten baso jabe partikularrek Gipuzkoan (guztien %32,7). Foru Aldundiko laguntzak dituzten espezien artean, bigarrena sekuoia luzea izan zen (%11,3%), ondoren itsas pinua (%8,6), pagoa (%8,16) eta Douglas abetoa (%6,99).

Bestalde, inongo laguntzarik gabe, 200 hektarea eukalipto landatu zituzten Gipuzkoako baso jabeek aurretik gaitzak jota zeuden intsinis pinuen tokian; cryptomeria baino askoz gutxiago. Hau da, eukaliptoak pinuak moztutako lursailetakoko %5,77% bete zuen. Espezie hau Gipuzkoan oraindik gutxi sartu da. 2019ko baso-inbentarioak dioenez, eukalipto mota desberdinek 632 hektarea betetzen dituzte gure lurralde historikoan, zuhaitz guztien %0,5 inguru.

Espezie nagusien inguruko iruzkina, komentarioa:

Fernando Otazua, GEBEko zuzendari teknikoak, zuhaitz mota bakoitzaren azalpen laburra eskaintzen du ondoren:

Cryptomeria japonica: “Duela urte batzuk basoberritzeren bat edo beste egin zen espezie honekin eta gutxinaka, gaitzak jota dagoen pinuaren ordeztartzen ari da orain. Sarritan, banda marroiak jota dauden lursailak ez dira emankorrenak izaten. Antza, gaixotzen diren lehenengo zuhaitzak ahulenak baitira”, dio elkartekok zuzendari teknikoak.

Otazuaren hitzetan, “pinu gaixoa mozten duzunean, ez dizu edozein espeziek balio toki berean jartzeko eta cryptomeriak eskaintzen diguna horixe da, oso aberatsak ez diren eremu horietan ondo hazten dela eta horrek eraman du azken urteetan birlandaketetan nagusi izatera”.

Gipuzkoan badaude orain dela urte dexente landatutako cryptomeriak, baina Otazuaren ustez, goiz da oraindik ondorio sendoak ateratzeko. Hau da, intsinis

pinua ordezkatzeko paperean alternativa sendoa den edo ez jakiteko. “Egurraren kalitatea neurtzeko ikerketaren bat egiten ari dira. Nahiko enigmatikoa da oraindik zuhaitz honek eskain diezakigukeena. 2018ko elurteetan ikusi ahal izan genuen hainbat arazo izan zituela, hau da, intsinis pinuaren antzera, elurraren pisuarekin etzan egiten zela”.

Japonian sugi izena ematen diote: “Zuhaitz sakratua dute eta bere egurrarekin egin zuten gaur egun herrialde hartan dagoen eraikin zaharrenetariko bat. Bestalde, Portugalgo Azore uharteetan espezie honetako landa eremu zabalak daude eta Portugalgo hotel bateko kanpo estalkia egiteko erabili dute”, argitu du Otazuak.

Ondo hazten da. Horretan ez dago zalantzarik eta Gipuzkokako Foru Aldundia frogak egiten saiatzen ari da, lurraldean dagoen egur kopuru txikiarekin. “Urnieta inguruan, lursail publikoetan, badago 30 urte baino gehiagoko landaketaren bat. Badago zuhaitz honen inguruan apustu bat, baina oraindik gehiago ezagutu behar dugu. Bibliografia gauza bat da eta bestea, tokian toki ematen duen erantzuna”, azaldu du elkarteko zuzendariak.

Eukaliptoia: “Bere industria du bertan, Gipuzkoan. Arrisku ekonomikorik ez du. Apustu sendoa da erabilerari dagokionean eta espeziea ere oso ondo ezagutzen dugu, baina jabearentzat ere badu eragozpenik eukaliptoaren aldeko apustua egitea. Izan ere, gaur egun, produktu bakarra da eta industria bakarrerako. Hau da, eskariaren arriskuak eta produktuaren balorazioa aktore bakar baten eskuetan dago”, dio Fernando Otazuak.

Sekuoia luzea: “Espezi honen inguruko ezagutze eta egurraren kalitatea cryptomeriaren antzekoa da. Estatu Batuetan oso estimatua dago eta asko erabiltzen dute. Elurrari hobeto eusten dio. 2018an Gipuzkoan cryptomeriak etzan zituzten elurteek ez zieten hainbeste eragin sekuoia luzei. Espezie honek esijentzia handiago eskatzen digu hezetasun baldintza eta lurraren ezaugarrien aldetik. Hasieran, erroak botatzea kostatzen zaie, behin hasiz gero, oso ondo hazten da. Gipuzkoan hazkunde zoragarria izan duten sekuoia luze landaketak baditugu”.

Itsas pinua: “Industrial oso ondo ezagutzen du egur hau: Landetan dagoen pinua da. Baso jabeok egiten ari garen beste apustuetariko bat da eta industrial ere erabiltzen du. Akitaniako kideekin elkarlanean ari gara, izan ere, espeziearen hobekuntza genetikorako inbestigazio lerroak aurreratuta baitaude”, dio Otazuak

Baina ez al dio banda marroiak eragiten pinu mota honi? “Ondo moldatzen ari da; horrek ez du esan nahi immuneak direnik, baina gauza bat da azikula batek positivo ematea banda marroiaren gaitzari eta beste gauza bat, erabat desberdina, gaixotasuna garatzea. Pinuaren gaitzak eragin handia izan duen tokietan ere, itsas pinua ondo eusten ari zaio”.

Aldiz, Gipuzkoan itsas pinuak “historikoki ez du harrera ona izan. Kostaldean bai, gehiago ikus daiteke, intsinis pinua hain ondo moldatzen ez zen eremuetan, Jaizkibelen, adibidez; hareazko lurzoruetan. Bestalde, Landetan milioi bat hektarea daude, eta nahiz eta intsinis pinua baino gutxiago ordaindu duten berarengatik, gaur egun hainbat enkantetan prezio handiagoa lortzen ari da. Kontuan eduki beharreko aukera da. Itsas pinua hektareak irabazten ari da”, aitortzen du GEBEko zuzendariak.

Intsinis pinua: Datuek dena diote: 2019an ez zen landatu ezta hektarea bat: 122 bakarrik azken hiru urteak kontuan izanik, nahiz eta 2007tik hona Gipuzkoan gehien landatu den espezie izaten jarraitzen duen. Orotara, 1.858 hektarea, cryptomeriak 987 irabazi dituen bitartean. Eta 885 Douglas abetoak. “Epe luzera gurean intsinis pinuak izan dezakeen aukera bakarra laborategietan dago; hau da, gaitzari erresistentegoak diren aleak lortu eta hobekuntza genetikoaren bidez ugaitu. Bertako industria espezie honetara moldatuta zegoen erabat”, azaldu du Otazuak.

Pagoa. Zuhaitz hostotsuen artean, Gipuzkoako baso jabeen gustokoena da. Orotara, 2007tik hona 4.733 hektarea konifero landatu dituzte Gipuzkoan eta 1.308 zuhaitz hostotsu. Azken hauen artean, pagoa da nagusi, 112 hektarea azken urtean eta 415 2007tik hona.

“Gipuzkoako baso jabe partikularrek dirurik ematen ez duten bertako espezien aldeko aukera ere egiten dute. Baso jabeen beste multzo ba da. Euren ahalegina eta diruari inongo etekinik lortu gabe, musutruk lan egiten dutenak. Bertako zuhaitz hostotsu gehienak epe luzekoak dira. Pagoak, adibidez, 100 urteko zikloa du eta, beraz, hutsetik hasia, orain landatzea, abentura bat da: gainera, kostuak eragiten ditu, noski, urteroko garbiketa lanetan, udan. Bertako haritzarik dagokionean, arazoa larriagoa da. Errentagarritasunari atendituz, ezin liteke ulertu, baina halere, oraindik badaude beren zuhaitzak soili hazten ikustearekin gozaten duten baso jabeak ere”.

BASO ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA